



dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia
2010eko maiatzaren 29 eta 30 - IRUNEA - EIBAR

Argitaratzaileak: Kezka dantza taldea eta Duguna dantza taldea.
Diseinua eta inprimategia: Gertu Komunikazio Bide, S.L., Oñati.
<http://www.dantzan.com/blogak/ezpalak>



Dantza-jauziak. 2010eko ezpalak

ezpalak, karaktere dantzen
nazioarteko
jaialdia

Dantza genero zahar eta intesgarria osatzen dute dantza-jauziek eta mutil-dantzek. Jean Michel Guilcherrek dioenez, XIX. mendean hainbat idazle ohartu zen jauzien garrantziaz, baina ongi ezagutzen ez dituenarentzat konplexutasun handia dute. S. Harruguet-ek 1927an idatzitako hitz hauek jasotzen ditu Guilcherrek: “*Dantza guztien artean, originalenak, berezianak, zientifikoenak esan genezake, dantza-jauziak dira*”.

Desagertzeko kinka larriar izan dira ordea. 60ko hamarkada hasieran jauziak urrituta zeuden plazetan, eta ikertzaile eta sustatzaile sorta bati esker berpiztu eta sendotu dira berriz jauziak. Pierre Betti Betelu, Jean Michel Guilcher, Migel Angel Sagaseta, Juan Antonio Urbeltz eta Claude Iruretagoiena dira berpizkunde horren eragileetako batzuk.

Aurtengo Ezpalak jaialdian dantza-jauziak izango ditugu ardatz, eta maiatzaren 29an Iruñean, eta 30ean Eibarren, talde eta dantzari bikainen eskutik dantza-jauzien eredu, estilo eta tradizio desberdinak ikusi eta ezagutzeko aukera izanago dugu. Horretaz gain, dantzaldia ireki eta edonork parte hartu eta gozatu ahal izateko dantza-jauzien ekitaldiek osatuko dute gure jaialdia.

Duguna dantza taldea – Kezka dantza taldea



ezpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Ezpalak, dantza-jauzien nazioarteko jaialdia

Iruñean 2010eko maiatzaren 29an - Eibarren 2010eko maiatzaren 30ean

Iruñea. Maiatzak 29, larunbata

17:30ean Kalejira alde zaharreko karriketan barna.

18.00etan Ezpalak, dantza-jauzien nazioarteko jaialdia Burgoen Plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia:

• Duguna Dantza Taldea (Iruñea)	6
• Baztandarrak (Baztan).....	7
• Luzaideko bolantak (Luzaide).....	8
• Argia dantzari taldea (Donostia)	9
• Ossau haraneko musika eta dantza (Biarno).....	10
• Maritzuli konpainia	11
Segidan: dantzaldi irekia Aiko taldearekin.....	12





Eibar. Maiatzak 30, igandea (45. Euskal Jaia)

12.00etan Euskal Jaiko kalejira Urkizutik Untzagara.

12.30etan Ezpalak, dantza-jauzien nazioarteko jaialdia Untzaga Plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia:

• Kezka dantza taldea (Eibar)	13
• Baztandarrak (Baztan)	7
• Argia dantzari taldea (Donostia)	9
• Ossau haraneko musika eta dantza (Biarno)	10
• Maritzuli konpainia	11

Segidan: dantzaldi irekia Aiko taldearekin..... 12

14.30etan Bazkaria Untzagako karpan.

17.00etan Erromeria Aiko taldearekin



zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Duguna dantza taldea 1949. urtean sortu zen, Iruñeko udalaren gerizpean. Dantza tradizio oparoa du Iruñeak, eta taldearen helburua berau ezagutu eta zabaltzea da.

Jaialdi honetarako zenbat dantza-jauzi atondu ditugu. Taldeko txikienek *hegi* dantzatuko dute eta nagusiek, *ainhoarrak*. *Mutxikoak* eta Amikuzeko *gabota* ere dantzatuko dute zenbait dantzarik Maritzuli konpainiarekin batera, eta *añoar-ttipiak* jauzi eran emanen dute Dugunakoek, Baztandarrek mutil-dantzen urratsekin egiten duten aldi berean.

Duguna dantza taldea – Iruñea (Nafarroa)

Hegi eta ainhoarrak



Baztandarrak – Baztan (Nafarroa)

Baztango mutil-dantzak

ezpalak, karaktere dantzen
nazioarteko
jaialdia

Baztango mutil-dantzak dantza-jauzien genero nagusia kokatzen baditugu ere, badituzte hainbat ezaugarri dantza-jauzietatik bereizten dituztenak. Hilario de Olazaran-ek XX. mende hasieran aipatzen zuenez, Baztango adinekoek hogeitabost mutil-dantza ezagutzen zituzten, baina 60ko hamarkadan Jean Michel Guilcherrek galdetu zituen dantzariak hamalau jauzi baino ez zituzten ezagutzen. Gaur egun berriz ere berpiztu dituzte galtzen joan direnetako batzuk.

Borobil handi batean egin ohi dira mutil-dantzak, baina lerro zuzen batean ere dantzatzen dira zenbaitetan, eta borobilean ari direlarik, ordulariaren kontrako norabidean doa taldea mugitzen. Mutil-dantzak dantza-jauzietatik bereizten dituzten ezaugarrietako bat dantzariak itzulika –ezkerrera eta eskuinera– dantatzeko duten joera da. Dantza-jauzietan ez dira ohikoak itzuli osoak, eta mutil-dantzetan, berriz, mugimendu erabilienak itzuliak dira.

Baztandik etorriko da Iruñea eta Eibarrera mutil-dantzari talde bat. Baztanen, herrietako festetan mutil-dantzak dantzatzen aritu ohi direnetako batzuk dira. Jabier eta Patxi Larralde txistulari eta dantza-maisuek urteak daramatzate Baztango tradizioak eta mutil-dantzak jotzen, dantzatzen eta biziartzten, eta haien eskutik etorriko da mutil-dantzari talde hau Ezpalak jaialdira.





ezpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Luzaideko bolantak – Luzaide (Nafarroa) Pazko igandeko dantzak

Administratiboki Nafarroa Garaian lekutua egonagatik ere, Nafarroa Behereko dantza tradizioaren baitan koka ditzakegu Luzaiden egiten dituzten dantzak. Inauteri garaiko dantzak duela zenbait hamarkada, Pazko igandez dantzatzen dituzte egun. Bertako erreperitorioaren baitan dantza-jauziak dira ezinbesteko erreferentzia. *Hegi, ostalerrak, marianak, azkaindarrak, muxikoak...* egiten ohi dituzte haien emanaldietan.

1929. urtean Faustin Bentaberry-k Bartzelonako Nazioarteko Erakusketan aurkezteko *sorginak* eta *euskaldunak* izeneko dantzak sortu zituen. Kanpoko eszenatoki batera begira sortu zituen dantza horiek, jauzien urratsetan oinarrituta, baina, ondoren Luzaide eta Nafarroa Behereko inauterietan, kabalkadetan eta ospakizunetan txertatu ziren, eta gaur egun tradiziozko dantzatzat ditugu.

Beraz, dantza horiek eta beste zenbaitzuk erakutsiko dizkigute luzaidarrek Ezpalak jaialdian: *euskaldunak, sorginak, hegi, makilari*, eta bigarren eta laugarren *kontra-dantzak*.



Argia dantzari taldea – Donostia (Gipuzkoa)

Aitzina pika eta ostalertsu

ezpalak, karaktere dantzen
nazioarteko
jaialdia

Zuberoa eta Nafarroa Beherean jauziak dantzatzeko erabili izan den manera ikasi zuten orain 40 urte Argia dantzari taldeko kideek. Dantza tradizionalaren alorrean erreferente nagusietako bat da Donostiako dantzari taldea, eta talde horretako dantza-maisuak izango dira Ezpalak jaialdian jauziak dantzatzen.

1969ko udazken eta neguan, Uharte Garazin, Faustin Bentaberrirekin aritu ziren dantza-jauziak ikasten Juan Antonio Urbeltz eta Marian Arregi. Handik hilabete batzuetara, 1970ean, Iruñeko Gayarre antzokian aurkeztu zituen Donostiako Argia dantzari taldeak Nafarroa Behereko inauterietako dantzak, dantza-jauziak tartean zirela. Ondoren, Etxahun Irurirekin Zuberoako dantza-jauzietan sakontzeko aukera izan zuten taldeko arduradunek.



40 urteren buruan, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ikasitako dantza-jauzi haietako batzuk berriz ere dantzatzen arituko dira Iruñean eta Eibarren. Urbeltz buru dutela, Argia dantzari taldeko dantza-maisuek *aitzina pika* (edo *mariana*) eta *ostalertsu* jauziak dantzatzeko dituzte.

Groupe traditionnel ossalois – Ausseau (Biarno)

La crabo, le peyroutou, le monein, le moutchicou



Zuberoa ondoko Biarnon ere badute dantza-jauziak egiteko ohitura. “Sauts” edo “saut basque” deitzen diete haiek eta Euskal Herriko dantzen eragina nabarmena da Ausseau bailarako dantza hauetan. Izenei erreparatuz gero *le monein*, *le moutchicou*... topatuko ditugu: izenetan, doinueta eta urratsetan, beraz, gure jauzien gertuko ahaide, zalantzarik gabe.

Ezpalak-en parte hartuko duen *groupe traditionnel ossalois*, ez da ohiko dantza talde bat. Jean Luc Mongauge *tambourinaire* biarnesak egun honetarako espreski bildutakoa baizik.

Ezpalak jaialdian honako dantzak erakutsiko dituzte: *la crabo*, *le peyroutou*, *le monein* eta *le Moutchicou*. Dantza haiek, gure jauzien gisan, zirkuluan egiten dira, eta biarnesen irudiko, antzinako dantzak dira, guda-jatorria edo jatorri inizatikoa izan dezaketenak. Ausseau-ko (edo Ossau) dantzak berariazkoak dira, eta ete-nik gabe transmititu dira belaunaldiz belaunaldi.

Dantzei doinua jartzen diete *Tambouri* sokadun danbolinak eta *Accordéou* soinu diatonikoak. Esan bezala, dantzariak ez dira folklore dantza talde bateko kideak, herriko jaietan dantzatzen duten herritarrak baizik.

Maritzuli konpainia – Biarritz (Lapurdi)

Azkaindarrak eta segidak, Amikuzeko gabota, mutxikoak

Ezpalak, karaktere dantzen
nazioarteko
jaialdia



Claude Iruretagoiena dantza-maisu, ikertzaile eta ko-reografo lapurtarrak zuzentzen du Maritzuli konpainia. Jauziak plazetan berriz ere zabaltzearen arduradun izan zen Pierre Betti Betelu maisuaren ikasle izan zen Claude, eta besteak beste, Juan Antonio Urbeltz eta Argia dantzari taldearen laguntzarekin tradizioa ikertu eta biziberritzeko ibilbide propioa urratzen ari da.

Dantza-jauzien inguruan gaur egun dagoen espezialista handienetakoa da Claude Iruretagoiena. Lapurdi eta Nafarroa Behereko tradizioak sakon aztertu eta landu ditu, eta ezagutza horretan oinarrituta dantza-jauziak dantzatu

eta eraberritzeko proposamenak bultzatzen ari da.

Maritzuli konpainiak aurkeztu duen azken ikuskizunean, *Aurrez aurre* izenekoan, jauziak dantzatzeko zeuden estilo desberdinak bildu ditu, eta horiek batera, dantza-jauziak desafio joko moduan dantzatzeko zegoen ohituran oinarrituta errekreazioak egin ditu. Aiko taldearen laguntzarekin, hoorietako batzuk eskainiko ditu Maritzulik Ezpalak jaialdian. *Azkaindarrak eta segidak*, Amikuzeko *gabota* eta *mutxikoak* plazaratuko dituzte elkarrekin Maritzulik eta Aikok.



ezpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Aiko taldea – (Bizkaia)

Jauzien doinua eta
dantzaldi irekia

Aiko musika eta dantza tradizionalaren mundua ikertu, sustatu, eta gizarteratzeko sortua den musika eta dantza mai-suen talde bat da. Dantza tradizionalaren didaktika lantzeaz gain, plazara ere ateratzen dira, dantzara eta jotzera. Dantza tradizionalen musikarekin hiru disko argitaratu dituzte, eta besteak beste, Maritzuli konpainiaren “Aurrez aurre” ikuskizunari musika jarri dio Aikok. “Dantzarako musika egitea gogoko dugulako, dantzatzea maite dugulako, jotzen eta dantzan eta irakasten dihardugu. Eta guretzat musika eta dantza uztarturik doaz berez: elkarren osagarri eta lagungarri”. Laster kaleratuko dute beren lan berria, hain zuzen ere dantza-jauzien ingurukoa. Dantza-jauzien ahozko eta idatzizko iturriak aztertu ondoren, proposamen eraberritzailea egingo dute jauzien musikaren interpretazioari dagokionez, orain arte nagusi izan den biko konpas egituraren orde, dantzaren pultsoari kasu egin eta hiruko konpas sistema proposatuko baitu Aikok.

Ezpalak jaialdian Maritzuli konpainiaren dantzei jarriko diete doinua, dantzan ere arituko dira horiekin batera, eta dantzarien emanaldien ostean dantzaldi irekia emanen dute plazer duen orok dantzan egin dezan.





Kezka dantza taldea – Eibar (Gipuzkoa)

Xinple, marmutx eta zapatain-dantza

Eibarko Klub Deportiboaren baitan sortu zen Kezka dantza taldea 1958. urtean. Eibarko dantza ospakizunak sendotu eta bultzatzeko lanean dihardu orduetik.

Hiru dantza-jauzi eskainiko ditu Kezka dantza taldeak dantza eskolako ikasleekin batera Ezpalak jaialdiaren Eibarko emanaldian: *xinple*, *marmutx* eta *zapatain-dantza*. Dantza-jauzien sisteman oinarritutako hiru dantza erraz dira.

Zuberoako godalet-dantzan erabili ohi den doinu bera ageri da xinple dantzan, baina urratsak Nafarroako Beherea eta Lapurdiko jauzietan bezala emanik. Marmutx-ek Europako kanta zahar eta ezagun bat dut oinarrian. Malbrough (Mamburu hegoaldean) Dukea gerrara joan zenekoa gogorarazten duena. *Xinple* eta *marmutx* Uztaritzeko inauterietan kaskarotek dantzatzen dituzte gaur egun. Azkenik, zapatain-dantza dantza-jauzietan oinarrituta ofizio-dantza bat da, Violet Alford-ek XX. mende hasieran Ainhoan jaso zuena.





ezpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Enbor bereko ezpalak

Iruñeko Duguna eta Eibarko Kezka dantza taldeek antolatzen duten Ezpalak jaialdia gai baten inguruan egituratzen da urtero. Hauek dira aurreko urteetako gaiak:

- 2006: Ezpata-dantzak
- 2007: Makila-dantzak
- 2008: Arku-dantzak
- 2009: Karaktere-dantzak
- 2010: **Dantza-jauziak**

Bost urte hauetan Ingalaterra, Flandes, Frantzia, Portugal, Katalunia, Valentzia, Gaztela, Galizia eta Euskal Herriko hainbat bazterretako dantzak eta dantzakerak ikus- teko aukera eskaini du Ezpalak jaialdiak. Baina desber- dintasunak baino gehiago, kultura koreografiko guzti ho- rien arteko antzekotasunak nabarmentzeko ahalegina da Ezpalak. Izan ere, folkloreak herrien arteko loturak as- paldikoak direla erakusten digu, eta dantza tradizionalak ikusiz, Europako eskualdeen artean, historian zehar, behin eta berriz elkartrukatu eta konpartitu ditugun mu- sika eta dantzakerak ezagutzeko aukera dugu.





Mutil-dantzak Elbeten 1927. urtean. Arg. Fernando Amorena, *Baġtan solasean*.



ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Ayuntamiento de
Pamplona
 Iruñeko Udala

